



Gaur duela 33 urte erail zituen Guardia Zibilak Susana Arregi eta Ion Lizarralde eusko gudariak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 25/06/2023

Hil arte torturatu zituen Guardia Zibilak bi militante iraultzaileak eta German Rubenach ere larriki zauritua utzi zuen enfrontamenduaren ondorioz.

1990ko ekainaren 25ean enfrontamendu bat heman zen Irunberriko arroiloan Guardia Zibilaren eta hiru militante iraultzaileen artean, non Guardia Zibilak bi irteerak itxi zituen hiruak han arrapatuz. Honen ondorioz indar errepresiboek Susana Arregi eta Ion Lizarralde torturatu eta hil ziztuen eta Germaniri tiro bat heman zioten buruan, era berean, Guardia zibilaren kide bat ere hil zen enfrontamenduan.

Bertsio ofizialak German Rubenach, ez dena ezertaz oritzen zaurien ondorioz, bi hilketa hauen errudun jo zuten. Hala ere hainbat urte geroago bertsio hau baztertu egin zuen espainako auzitegi nazionala eta hainbat galdera erantzun gabe geratu ziren, esate baterako, nola iritsi zen Irati ibaiaren ura Ion Lizarralderen biriketara tiroz hil bazen edo zergatik Susana erail zituen tiroak hurbiletik hemanda zeuden, besteen artean. Era berean, nahiko esaguratsua izan zen ekintza hauen egun batzuetara hainbat sarekadak egon zirela indar errepresioen partetik, inoiz ez zena argitu nondik zetorren lortutako informazioa.

<https://eh.lahaine.org/gaur-duela-33-urte-erail>